

KONTROL MOZIOA

Katalunia plazako, Okendoko eta Kontxako aparkalekuetako arazoak direla-eta

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko apirilaren 18an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urte hasieratik hona, Okendo, Kontxa eta Katalunia plazako aparkalekuetako langileen kexen berri izan ondoren, arazoak zuzenean hiritarrei eragiten ziela ikusi eta erabiltzaileen beraien kexak ere Udalera iritsi zirela egiaztatu ahal izan genuen. Horren ondorioz, hainbat galdera eta interpelazio egin ditugu -besteak beste mozio hau oinarri duena- problematika hobeto ezagutzeko asmoz eta, garrantzizkoena, irtenbideak bilatu nahian.

Hasieratik, beraz, argi geratu zen langileen aldarrikapenak lotuak zeudela haiei zegozkien baldintzekin, baina baita ere gaur egun herritarrei ematen zaien zerbitzuan dauden arazoekin: langileen faltaz erabiltzaileak artatzeko denbora, ahozko zerbitzuaren hizkuntza trataera, garbiketa eta abar. Horretan ere, jardun nagusiaren balizko azpikontratazioa mahaigaineratu da, eta argitu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat da, dudarik gabe. Gauzak horrela, udan egoera larriagotu egin zen eta langileek lau eguneko greba partzialak eta hiru asteko greba egin dituzte.

Gaur egun lan gatazka konpontze bidean dago, langileek beraiek jakinarazi dutenaren arabera, baina zerbitzuetan zeuden arazoaren irtenbide behin betikoa ez dago itxita. Udal Gobernuak berak kezka konpartitu du, eta gaia sakontasunez aztertzen ari da, zinegotzi ordezkariak berak hilabete honetan azaldu zigunaren arabera. Hain zuzen ere, hasieratik uneoro ikuspuntu bera izan ez dugun arren, txalogarria da azkenean zerbitzuaren inguruko arazoak konpontzeko erabaki irmoa hartu izana. Udalari kontzesioaren baldintzak egoki betetzen ari direla egiaztatzea dagokionez, orain arazoei irtenbideak lehenbailehen bilatzeak du premia,

donostiarrei zein beste erabiltzaileei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea ziurtatu nahi badu.

Horiek horrela, hauxe da gure **MOZIOA**:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, donostiarrek zein beste erabiltzaileek kalitatezko zerbitzua jasoko dutela ziurtatze aldera, bere esku dituen baliabideak erabil ditzan, ahalik eta lasterren Okendo, Kontxa eta Katalunia plazako aparkalekuetako zerbitzuen arazoak konpontzeko eta egon daitezkeen okerrak zuzentzeko.

Donostian, 2016ko irailaren 23an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia